

## HONELA SENTITZEN NAIZ

Kaixo! Ni apur bat kezkatuta nago gai hau dela eta. Zu nola sentitzen zara? Bueno, nire izena Elene da eta lagunekin ibiltzea gustatzen zait. Ibon, nire aita da eta margolaria da. Kanean koadroak margotzen ditu. Eta azkenik Karmen nire ama da eta etxeko andrea da. Guztiak aurkeztu dizkizuet ezta?

Gaur Asteazkena da eta eskolan esan digute, bihartik aurrera etxean gelditu behar garela, bi aste edo... ez dakit zenbat. Laurak laurden gutxian, nire gelako ikasle guztiak ari dira koaderno guztiak hartzen: Gaztelaniakoa, Euskerakoa, Ingurunekoa, Matematikakoa, Ingelesekoa... Etxera iritsi naizenean, han dago nire ama etxeko lanak egiten. Esan diot:

- Ama, eskolan esan digute bihartik ez dakit noiz arte, etxean gelditu behar garela - esan nion nik- Aita ere etxean gelditu behar da gurekin?- galdetu nion.

- Ez dakit aita gurekin gelditu behar den. Baina baietz esango nuke - erantzun zidan. Eta handik piska batera aitak etxeko txirrina jotzen du. Etxera sartzen denean, lehenengo hitza esatera doanean, ama eta nik esan genion, biok batera:

- Badakigu! - esan genion - Etxean gelditzea erabaki duzu!

- Bai - erantzun zuen berak.

Egunero egiten ditut etxerako lanak, baita gimnasia ere. Eta beno, ez da hain gaizki egoten etxean ere.

Bi hilabete pasa dira eta eskolan gaude guztiok poz-pozik. Lauretan amak galdetzen dit etxean gaudela:

- Zer? Orain nola sentitzen zara?

- Pozik, birus hori pasatu eta gero "honela sentitzen naiz" ni - erantzun nion, marrazki polit bat erakutsiz, ni pozik agertzen nintzela irudikatuz.

Bukatu da, eta denok pozik gaude! Hurrengo arte!